



**EUSKALTZAINDIAREN ZUZENDARITZAKO
ORDEZKARIEN AGERRALDIA, EUSKO
LEGE BILTZARRAREN KULTURA, EUSKARA,
GAZTERIA ETA KIROL BATZORDEAREN AURREAN,
2014KO MARTXOAREN 18AN**

EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Euskaltzaindiaren Zuzendaritza

AGERRALDIAREN NONDIK NORAKOAK

- ☐ Euskaltzaindia, hizkuntzaren erakunde aholku-emaile ofiziala: Euskal Autonomia Erkidegoaren estatutua (6. artikulua).
- ☐ Lehen agerraldia: lan planak hizkuntza eta kultura proiektuak azaltzea.
- ☐ Jarraikotasunaren bila.

EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

EUSKALTZAINDIAREN SORRERA, IZAERA ETA ZEREGINAK

- ❑ Euskaltzaindia Euskal Herri osoko erakundea da, 1918. urtean sortua, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundien ekimenez.
- ❑ Hego Euskal Herrian, otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuak Euskararen Errege Akademia gisa aitorpen ofiziala eman zion erakunde horri; harrezkero, Euskaltzaindia da euskararen arloko erakunde eskuduna, hizkuntza bera ikertu eta babesteko.
- ❑ Ipar Euskal Herrian, Euskaltzaindiak onura publikoko aitormena du, 1995. urteko otsailaren 20ko dekretuaren arabera.

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

EUSKALTZAINDIAREN SORRERA, IZAERA ETA ZEREGINAK

- ❑ 1979ko Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak eta Nafarroako Foru Erkidegoko 18/1986 Euskarari buruzko Foru Legeak beren-beregi aitortu dute Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofiziala dela, euskarari dagokionez.
- ❑ Erakunde horren helburu nagusiak dira, hain zuzen ere, euskara ikertzea, arautzea eta haren erabilera sustatzea.
- ❑ Hortaz, bere izaera zientifikoa eta akademikoa, alde batetik, eta gizartearekikoa, bestetik, azpimarratu behar dira.

EUSKALTZAINDIAREN IKER ETA JAGON SAILAK

- ❑ Iker Sailak gramatika, dialektologia, onomastika, literatura eta lexikografia edo hiztegigintza bereizten ditu. Hainbat egitasmo garrantzitsu barruratzen ditu, dagoeneko euskal gizartearen eskuetan daudenak edota osatzen ari direnak, hala nola: *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, *Hiztegi Batua*, *Orotariko Euskal Hiztegia*, *Zientzia eta Teknika Hiztegia*, *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa*, *Euskal Gramatika*, *Euskara Batuaren Eskuliburua*, *Euskararen Herri Hizkeraren Atlas*, *Euskal Corpus Onomastikoa* eta abar.
- ❑ Jagon Sailak, berriz, corpora, euskalkiak, sustapena eta euskararen historia soziala lantzen ditu.
- ❑ Euskaltzaindiak lan egiteko moduak hauek dira: batzordeak, zerbitzuak eta egitasmoak.


GIZA BALIABIDEAK

- ❑ 2014. urtean Euskaltzaindiak Euskal Herri osoko 29 euskaltzain oso ditu, 27 ohorezko eta 145 urgazle.
- ❑ Horiez gain, 158 pertsona ari dira, euren borondatez, Euskaltzaindiko batzorde eta lantaldeetan lanean.
- ❑ Maila profesionalean langileak (23) eta egitasmo-teknikariak (10) aritzen dira.
- ❑ Euskaltzaindiaren aktiborik funtsezkoenak horiexek dira.

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

GIZARTEAK NOLA IKUSTEN DU EUSKALTZAINDIA (2008)?

Zenbateraino zaude ados (0tik 10era) Euskaltzaindiari buruz egindako ondorengo adierazpenekin
(batez besteko balioen rankinga)



ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

EUSKALTZAINDIA AURRERA BEGIRA

Euskara bere hedadura osoan hartzen du Euskaltzaindiak, bere galtzarrean euskalki eta eskualde guztietako ordezkariak dituelarik. Ordezkaritzak ditu Euskal Herriko hiriburuetan. Erabakiak hartzeko baditu bere erregelak, Arautegian garbi eta zehatz jarririk daudenak. (Villasante 1988, Euskararen auzia)

Hizkuntza baten normalkuntzan zerbait antzeko gertatzen da, bada. Hizkuntza gizartearen lokarria da. Gizarteak, bere harremanetarako, behar du lokarri hori bateratua egon dadin. Hizkuntza, ordea, bere kasa utzirik denean, zatikatua egon ohi da; baditu mila hari-mutur aidean, han hala eta hemen hola. Egoera horretan dagoen bitartean, lokarri-ofizioa betetzeko ez da gai izaten; batez ere idatzizko zereginak betetzeko. Orduan norbaitek, autoritate batek, alegia, behar ditu puntu horiek erabaki, ez itsu-itsuan, noski, literatur tradizioari, gaurko erabilerari etab. begiratzuz baizik. (Villasante 1988, Euskararen auzia)

EUSKALTZAINDIA XXI. MENDEAN: PAUSURIK NABARMENENAK

KUDEAKETA MAILA:

- ☐ Plan estrategikoa (2011-2013/2013-2016). 11 ERRONKA ETA 5 ILDO.
- ☐ Egitasmoen, lantaldeen, batzordeen eta zerbitzuen jarraipena egin. Aldian-aldean eginikoaren eta aurreikusitakoaren arteko alderaketa egiten du Euskaltzaindiak, adierazitako ibilbideak koordinatzeko xedearekin.

IKERKETA MAILA:

- ☐ Euskaltzaindia ikerketa-erakunde gisa aitortua izan da, Espainiako Zientzia eta Teknologia egitasmoetarako.

FINANTZAKETA MAILA:

- ☐ Aurrekontuetan: Sarrera = irteerak. Ondorioz, defizitik ez izatea. Diru-baliabideen kudeaketa eragingarria. Urtero Aditegi-txostenak egiten ditu Euskaltzaindiak.
- ☐ Herri administrazioekiko programa-kontratuaren (2010) eta diru-laguntza izendunen bitartez eskuratzen zaizkion diru-baliabideen kudeaketa zorrotza eta gardena. Herri-erakundeei urtean zehar baliabideen kudeaketaren berri ematen zaie. Orobat, erakunde pribatu desberdinetatik (Kutxabank, Laboral Kutxa eta gainerakoak) jasotzen dituen diru-baliabideen kasuan ere.

EUSKALTZAINDIA XXI. MENDEAN: PAUSURIK NABARMENENAK

JAKITEA eta JAKITEAREN ESKUALDAKETA:

- ☐ Hizkuntza industriekin, Unibertsitateekin, euskaingintza eta euskal gizartearen herri-erakundeekin, elkarteekin eta hedabideekin lankidetzaz-bideak jorratu eta areagotu, lankidetzaz-hitzarmenen eta egitasmoen bidez.
- ☐ *Euskera* agerkaria berriztatu eta aldizkari zientifikoaren mailara jaso.
- ☐ Webgunea eraberritu eta irisgarriago egin.
- ☐ Argitalpenak berriztatu eta zabalkundea hobetu.
- ☐ Euskaltzaindiak egiten duen lana gizarteratu.

KANPO-HARREMANAK:

- ☐ Akademien arteko harremanak areagotu eta lankidetzaz-bideak jorratu.

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

PLAN ESTRAGIKOA (2011-2016): 11 ERRONKA

1. Erakundearen giza baliabide, ekonomiko, tekniko eta materialen erabilera optimizatzea.
2. Finantzaketa-bide berriak lortu, diru-iturriak dibertsifikatu eta erakundearen finantza egoera egonkortzea lortu.
3. Barne-komunikazioa indartu, zehar-lerroko komunikazio-bideak zabaldu, batzorde-arteko elkarlana.
4. Egituraz kanpoko erakunde eta profesionalekiko elkarlana eta lankidetzak-sistemak hobetu eta areagotu.
5. Euskaltzaindiaren lana gizarteratu, hizkuntzaren corpus landua hizkuntzaren erabilerara eraman eta azken finean, Akademiaren lanak eraginkortasun handiagoa izateko beharrezko duen dibulgazio-lan hobea, argiagoa eta zabalagoa egitea.
6. Erakundearen gizarte mailako presentzia areagotu eta erakunde gisa Euskaltzaindiaren irudia sendotuko duen kanpo-komunikaziorako plangintza.

PLAN ESTRAGIKOA (2011-2016): 11 ERRONKA

7. Euskararen normalizazioak hain beharrezkoa duen Euskaltzaindiaren jarduera arauemailea, eraginkorragoa egin.
8. Hizkuntzaren corpusari buruzko aholku eta kontsulta zerbitzuetan, erakunde eta profesionalei zerbitzu-eskaintza hobeagoa ziurtatzeko urratsak egitea: teknologia berrien erabilpen hobeago eta handiagoa, lan-prozesuetan oinarritutako kudeaketa-ereduen etengabeko hobekuntza eta baliabideen doiketa.
9. Ahozko hizkera-moldeak landu eta hizkuntza mintzaturako erregistroak, lehentasunezko gizarte-esparru eta segmentu jakinetara zabaltzeko egitasmoak bultzatu: gazteak, ikus-entzunezko hedabideak, irakasleak...
10. Euskararen erabilera sustatzeko egitasmoetan parte-hartze handiagoa eta elkarlan estuagoa, gizartearen alor desberdinetan euskararen normalizazioa lantzen ari direnekin.
11. Euskalgintzako eragile eta hizkuntzalaritzako profesionalek Euskaltzaindiari eskatutako egitasmoei lehentasuna ematea epeetan gehiegi luzatu gabe burutu ditzan.

5 ILDO ESTRATEGIKO (2011-2016)

- A. Ikerketa eta araugintza indartzea zein sustatzea.
- B. Euskaltzaindiaren lana gizarteratzea eta gizartearekiko harremanak indartzea.
- C. Euskaltzaindiaren lana are ikusgarriagoa egitea zerbitzuen bidez.
- D. Erakundearen barruko lana eraginkorragoa bilakatzea, lan egiteko moldeak gaurkotuz, prozesuen arabera jardun eta erakundearen barne-antolaketa eraberritu, eta eraginkor bihurtuz.
- E. Euskaltzaindiaren jardunari eusteko eta areagotzeko asmoz, finantzaketa-bide berriak lortzea, diru-iturriak dibertsifikatuz eta erakundearen finantza-egoera egonkorra lortzeko bideak jorratuz.

EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

2013-2016 ALDIRAKO HELBURUAK

1. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* 4 liburuki berri.
2. *Hiztegi Batuak* 63.000 hitz jasoko ditu, Hiztegi ortografiko arauemailea.
3. *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak* 2. argitaraldia. 43.000 hitz barnebilduko ditu. Bestelako hizkuntzetan eskaintzen den antzeko hiztegi estandarra eta arauemailea, euskara-euskara moldean.
4. *Euskararen Hiztegi Historiko Etimologikoa*, ezinbestekoa dena euskararen bilakaera aztertzeko hizkuntzalaritza historikoaren eremutik.
5. *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak* lana eguneratu eta moldatu egingo da. Ondoren, lan honen laburpena egingo da.
6. Euskaltzaindiak emanak dituen arauak, gomendioak eta irizpenak era didaktiko eta dibulгатiboan gizarteratzeko, *Euskara Batuaren Eskuliburua*.
7. *Euskararen Historia soziala* egitasmoa, oinarritzkoa gure hizkuntzaren historia ezagutzeko, soziolinguistikaren eremutik.
8. Egungo euskararen erabilera segitzeko, corpusaren ikuspegitik, *Lexikoaren Behatokia* (60.000.000 testu-hitz barnebilduko dituen). Orainean eta etorkizunean lexikografian eguneraketak egiteko tresna baliotsua eta nahitaezkoa da.

2013-2016 ALDIRAKO BESTELAKO HELBURUAK

9. *Onomastika zerbitzua* berrantolatu eta irizpideak ezartzea. *Euskal Corpus Onomastikoa* gizarteratzea.
10. *Hizkuntzaren Kalitatearen Behatokia* zerbitzuaren sorrera.
11. *Ikertzaileen* figura sortzea eta barruratzea Akademiaren egituraren barruan.
12. Euskaltzaindiaren batzordeek ere lanean jarraitzea eta Euskaltzaindiaren zerbitzuak eragingarriak izatea euskal gizartearen aurrean.
13. Hizkuntza industriekin, herri-erakundeekin, unibertsitateekin, euskalgintzaren eta euskal gizartearen elkarte eta erakundeekin, hedabideekin eta abar lankidetzak bideak areagotzea, euskara prestigiatzeko eta are hobeto kokatzeko etorkizunari begira.
14. Euskaltzaindiaren ekarria proiektatzea euskal gizartean euskararen lurralde guztietan.
15. Kudeaketa gardena eta hurrekoa. Eskuartean dauzkan baliabideak ahalik ondoen eta eragingarrien baliatzeko asmo sendoa.

ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

EUSKALTZAINDIA SAREAN: ERAKUNDEAREN WEBGUNEA, MUNDU ZABALERA IRISTEKO BIDEA

[PLAZABERRI](#) | [AGENDA](#) | [HARREMANAK](#) | [BULEGO-HELBIDEAK](#) [EUSKARA](#)



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Bilat

[ERAKUNDEA](#) | [HIZKUNTZA BALIABIDEAK](#) | [IKER EGITASMOAK](#) | [JAGON EGITASMOAK](#) | [EGITASMO INSTITUZIONALAK](#) | [AZKUE BIBLIOTEKA](#) | [ARGITALPENAK](#)

Erakundea
Erakundearen berri
Historia
Hitzarmenak
Organigrama
ARAUTEGIA
OROTIDAZKIAK

■ Hasiera → Erakundea → Erakundearen berri

Erakundearen berri



Euskaraz, hau da, euskal hizkuntzaz arduratzen den erakunde ofiziala da Euskaltzaindia (1919). Mintzaira horri buruzko ikerlanak egiten ditu, berori babestea du xedetzat, eta Euskaltzaindiak eman ditu hizkuntzaren normalkuntzarako arauak.

Hizkuntza Akademia honen euskal izena Euskaltzaindia da.

Indoeuroparra ez den hizkuntza da euskara, eta euskal hiztun gehienak Euskal Herrian bizi dira (Estatu frantsesaren eta espainolaren arteko mugaldean, Bizkaiko Golkoko barne-txokoan). Hizkuntzaren lurraldea hiru eremu administratibo ezberdinetan zabalduz dago:

- Espainiako erresumako Euskadiko eta Nafarroako Erkidegoetan.
- Errepublikak Frantseseko Pirinio Atlantikoko Departamenduan.

Euskaltzaindiak ezagutza ofizial osoa du, Espainian Erret Akademia bezala (1976), eta Errepublikak Frantsesean Onura publikoko erakunde gisa (1995). Gizartearen aldetik ere herritarren artean altoren orokor zabala bereganatu du. Arrazoi hauengatik, arauak emateko jardura azkarra bizi izan du Euskaltzaindiak, betiere euskaldunen hizkuntza batasuna eta eguneratzea gidatuz, 1968tik hona, batez ere.

EUSKALTZAINDIA SAREAN: ERAKUNDEAREN WEBGUNEA, MUNDU ZABALERA IRISTEKO BIDEA



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Artículos

Buscar

Hosiera

Euskaltzaindia



La Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia, fundada en 1918, es la Institución Académica oficial que vela por el euskera.

Es una institución cuyo cometido es investigar y formular las leyes gramaticales de la lengua vasca, promover su uso y velar por los derechos de la lengua, entre otros.

El euskera es una lengua no indoeuropea cuya comunidad hablante radica principalmente en el País Vasco o Euskal Herria (entre los Estados francés y español, en el vértice del Golfo de Bizkaia). El territorio del idioma se extiende a tres ámbitos administrativos distintos:

- en el Reino de España, a la Comunidad Autónoma Vasca y a la Comunidad Foral de Navarra.
- en la República Francesa, a parte de su Departamento de

Euskaltzaindia goza del reconocimiento oficial, con carácter de Real Academia en España (1976), y como entidad de utilidad pública en el

EUSKALTZAINDIA SAREAN: ERAKUNDEAREN WEBGUNEA, MUNDU ZABALERA IRISTEKO BIDEA

[CONTACTS](#)[EUSKARA](#)[ESPAÑOL](#)[FRANÇAIS](#)[ENGLISH](#)



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Articles 

Recherche

Hosiera

Euskaltzaindia



L'Académie de la Langue Basque fondée en 1918 est l'institution académique officielle qui se consacre à la défense de la langue basque. Elle réalise des travaux de recherche en matière de langue basque et en établit les règles grammaticales; elle s'attache également à la promotion et aux droits de la langue basque.

Euskaltzaindia est le nom basque de l'Académie de la langue basque.

Le basque est une langue non indo-européenne dont les principaux locuteurs se trouvent au Pays Basque ou Euskal Herria (entre les états français et espagnol où il borde le Golfe de Gascogne). Ce territoire linguistique s'étend sur trois entités administratives différentes:

Euskaltzaindia bénéficie d'une reconnaissance officielle, elle est Académie Royale en Espagne (1976), et Etablissement reconnu d'utilité publique en France (1995). Elle jouit également d'une reconnaissance sociale par la population

EUSKALTZAINDIA SAREAN: ERAKUNDEAREN WEBGUNEA, MUNDU ZABALERA IRISTEKO BIDEA

[CONTACT](#)[EUSKARA](#)[ESPAÑOL](#)[FRANÇAIS](#)[ENGLISH](#)



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Hasiiera

Euskaltzaindia




The Royal Academy of the Basque Language (1919) is the official body responsible for Basque, that is the Basque language. It carries out research on the language and its object is to safeguard it; the Academy has formulated the rules for the normalisation of the language.

The Basque name of this language academy is *Euskaltzaindia*.

Basque is a non-Indo-European language and the majority of Basque speakers live in the Basque Country (on the area around the border between the French and Spanish states, at the heart of the Bay of Biscay). The territory of the language is distributed between three different administrative entities:

Euskaltzaindia enjoys full official recognition, as a Royal Academy in Spain (1976) and as a public non-profit organisation in the French Republic (1995). It has also earned broad acceptance in society at large. As a result, *Euskaltzaindia* has been notably active in its

EUSKALTZAINDIA SAREAN: ERAKUNDEAREN WEBGUNEA, MUNDU ZABALERA IRISTEKO BIDEA



The screenshot shows the Euskaltzaindia website with a green header and a light green background. The header includes navigation links: PLAZABERRI, AGENDA, HARREMANAK, BULEGO-HELBIDEAK, and EUSKARA. The main content area is divided into several sections: EUSKALTZAINDIA (REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA, ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE), ERAKUNDEA, HIZKUNTZA BALIABIDEAK, IKER EGITASMOAK, JAGON EGITASMOAK, EGITASMO INSTITUZIONALAK, AZKUE BIBLIOTEKA, and ARGITALPENAK. The HIZKUNTZA BALIABIDEAK section is highlighted and contains four sub-sections: Zuzenean, Ballabideak arloka, Ballabide orokorrak, and Argitalpenen bertsio elektronikoak. The Zuzenean section has a search bar and a dropdown menu for 'Hiztegi batua'. The Ballabideak arloka section lists various linguistic resources: Hiztegiak eta Corpusak, Gramatika, Dialektologia, Literatura, Onomastika, and Euskararen sustapena. The Ballabide orokorrak section lists: e-AEB (kontsulta edukialak jaltzeko), Jagonet galde-erantzunak, and Arauak. The Argitalpenen bertsio elektronikoak section lists: Bliidumak, "Euskera" agerkiaren hemeroteka, "Principe de Viana" aldizkaria, "Analtasuna" aldizkaria, and Beste argitalpenak. Below these sections, there is a list of links: Hiztegi Batua, Hiztegi Batu Oinarriiduna, XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa, Orotariko Euskal Hiztegia, Literatura Terminoen Hiztegia, and Lexikoaren Behatokiaren Corpusa. The Hiztegi Batua section is expanded, showing a description of the dictionary and a list of links: Hiztegi Batu Oinarriiduna and Arduradunak.

PLAZABERRI | **AGENDA** | **HARREMANAK** | **BULEGO-HELBIDEAK** | **EUSKARA**

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

ERAKUNDEA | **HIZKUNTZA BALIABIDEAK** | **IKER EGITASMOAK** | **JAGON EGITASMOAK** | **EGITASMO INSTITUZIONALAK** | **AZKUE BIBLIOTEKA** | **ARGITALPENAK**

Zuzenean

Bilatu nahi duzun forma:

Iturria

Hiztegi batua

Bilatu!

Ballabideak arloka

- Hiztegiak eta Corpusak
- Gramatika
- Dialektologia
- Literatura
- Onomastika
- Euskararen sustapena

Ballabide orokorrak

- e-AEB (kontsulta edukialak jaltzeko)
- Jagonet galde-erantzunak
- Arauak

Argitalpenen bertsio elektronikoak

- Bliidumak
- "Euskera" agerkiaren hemeroteka
- "Principe de Viana" aldizkaria
- "Analtasuna" aldizkaria
- Beste argitalpenak

Hiztegi Batua

- Hiztegi Batua
- Hiztegi Batu Oinarriiduna
- XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa
- Orotariko Euskal Hiztegia
- Literatura Terminoen Hiztegia
- Lexikoaren Behatokiaren Corpusa

Hiztegi Batua

Hiztegi Batua hitz zerrenda bat da, euskal hitzen, aldaeren eta horien guztien erabileren zuzentasuna edo egokitasuna jasotzen duena.

Zuzenean:

- Hiztegi Batu Oinarriiduna

Arduradunak:

EUSKALTZAINDIA SAREAN: ERAKUNDEAREN WEBGUNEA, MUNDU ZABALERA IRISTEKO BIDEA

[PLAZABERRI](#) | [AGENDA](#) | [HARREMANAK](#) | [BULEGO-HELBIDEAK](#) [EUSKARA](#)



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Bilatu

[ERAKUNDEA](#) | [HIZKUNTZA BALIABIDEAK](#) | [IKER EGITASMOAK](#) | [JAGON EGITASMOAK](#) | [EGITASMO INSTITUZIONALAK](#) | **[AZKUE BIBLIOTEKA](#)** | [ARGITALPENAK](#)

Azkue Biblioteka

[Bibliotekaren berri](#)

[Katalogoan bilatu](#)

[Zerbitzuak](#)

[Harremana](#)

■ Hasiera → Azkue Biblioteka → Bibliotekaren berri

Azkue Biblioteka



Azkue Biblioteka Euskaltzaindiaren liburutegia da eta beronen zerbitzura dago. Horrez gainera, zabalik dago ikertzaile ororentzat eta bere ahalbideen neurrian euskal kultura gaien ikerkuntza eta hedapena sustatzen eta laguntzen saiatzen da.

[Bilatu Katalogoan](#)

[Ikusi Katalogazko Erregelak \(PDF, 423 kb.\)](#)

Hizkuntza

Azkue Bibliotekaren Katalogoa (ABK) Euskaltzaindiaren bibliotekaren liburu eta aldizkarien katalogoa da. Une honetan euskara hutsez dago. Euskaltzaindiaren asmoa katalogo eleaniztun bat egitea da, eta horretarako lanean ari da, baina lehenengo eta behin euskaraz egin nahi izan du;



**ORDUTEGIA**

Azkue Bibliotekaren jendaurreko ordutegia:
9etatik eguerdikoko ordu 2etara

**IRADOKIZUNAK**

Azkue Bibliotekak pozik jasoko du edozein kritika edota iradokizun. Harremanetarako formularioa erabiltzera gonbidatzen

BISITAK ETA ORRI BISTARATZEAK (2013)



REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Webgunearen bertsio mugikorra



EUSKALTZAINDIA

www.euskaltzaindia.net



Smartphone
Iphone



Hiztegi Batua



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

Atzera Hasiera

Hiztegi batua

Bilatu:

Bilatu nahi duzun forma:

Bilatu

Bilatu:

Bilatu nahi duzun forma:

haur

Bilatu

Ikus halaber:

Argibideak

Laburdura zelnak

Hiztegi Batua jarrai (PDF, 2,1 MB)

A · B · C · D · E · F · G · H · I · J · K · L · M · N
· Ñ · O · P · Q · R · S · T · U · V · W · X · Y · Z

Hiztegi batua

24 sarrera forma=haur bilaketarentzat

Hurrengoak →

haur

- **haurdanik** adlag. *Batez ere Ipar.* 'haurretik, umetatik'
- **haur-denbora** edo **haur denbora**
- **haur egin**
- **haur-egite** edo **haur egite**
- **haur-galtze** edo **haur galtze**
- **haur-min** edo **haur min**
- **haur-oihai** edo **haur oihai**
- **haurrean** adlag. *Ipar.* 'umetan'
- **haurreko** izlag. 'umetakoa'
- **haurretik** adlag. *Ipar.* 'haurdanik, umetatik'

haurdun

[illegible]

EUSKALTZAINDIAREN AGERKARIA

EUSKERA

2012
57, 3

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque
Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language

EUSK

REAL ACADEMIA
ACADÉMIA



IDIA


IA VASCA
BASQUE

AURREKONTUAREN BILAKAERA

EUSKALTZAINDIA: Sarrera eta Gastuen bilakaera 2009 - 2014

(*) Zenbateko guztiak eurotan

(**) 2009 eta 2013 bitarteko ekitaldiak itxiak dira. 2014koa aurrekontua da




AURREKONTUAREN BILAKAERA

EUSKALTZAINDIA: EAEko herri-administrazioen ekarpenak 2009-2014

(*) Zenbateko guztiak eurotan


(**) Programa-Kontratutik kudeatzen diren dirulaguntzak



AURREKONTUAREN BILAKAERA

EUSKALTZANDIA: Bestelako herri-administrazioen ekarpenak 2009-2014

(*) Zenbateko guztiak eurotan



ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

☐ **Labur zurrean:**

Hitz batez, Euskal Herri osoa aintzat hartuta, Euskaltzaindiaren nortasunari eustea, nortasun horretatik gardentasunean jarduteko kudeaketaren aldetik eta gizarteari zerbitzua emateko, Euskaltzaindiak sortzen dituen emaitzak herritarrei, euskal hiztunei, herri-erakundeei, unibertsitateei, hizkuntzarekin loturiko industriei, eskola eta ikastolei, irakasleei, teknikariei, elkarte eta erakundeei eta hedabideei eskaintzeko, hurbileko erakundea izanik.

☐ **En resumen:**

Teniendo en cuenta la realidad de los territorios donde se utiliza el euskera, trabajar desde una personalidad propia, gestionando con transparencia y prestando servicio a la sociedad a través de las producciones que realiza la Academia y que van dirigidas a los ciudadanos, las instituciones públicas, las universidades, las industrias de la lengua, la enseñanza, la intermediación lingüística, las instituciones y asociaciones y los medios de comunicación, siendo una institución próxima a la realidad social y a sus requerimientos.